

OROITZAPENEN INDARRA

Kamilek hiru urte luze zeramatzan irla bakarti hartan bizirauten. Aurretik, amarekin batera belaontzi batean munduan zehar bidaiatzen ari zela itsas zurrumbilo beldurgarri batek ama desagertarazi zuen arte. Kamile gaixoa uharte harritsu bezain malkartsu batera iritsi zen belaontziaren hondakinen gainean, eta hiru urte horietan zehar, baldintza txarretan bizirauteko indar fisiko zein mentalez baliatu behar izan zen.

Hain zen uharte malkartsua, etxola flotagarri bat eraikitzea beste aukerarik ez zuela izan. Belaontziaren hondakinak eta enbor zatiak aprobeixatu zituen eraikinaren egitura osatzeko eta lastozko teilatua egin zion. Haizearekin etengabe kulunkatzen zen etxola hura.

Egunsenti bakoitzean, amak, itsasoak irentsi aurretik eman zion *zorioneko kaxatxo* besarkaturik esnatzen zen. Bere amak honako hitza esan zizkion itsasoak irentsi aurretik: *"Eutsi gogor eta ez etsi! Tori kutxatxo hau eta ireki ezazu soilik zeruko izarrak desagertzen direnean"*.

Amak, bere bizitza osoan zehar mimoz eraiki zuen zurezko kutxatxo hura, baino, ez zion inoiz esan barruan zeukana. Oso baliotsua izan behar zuen, bere edukia sekretupean gorde baitzuen bizitza osoan.

Kamile lo zegoen gau batean, etxearen kulunka gelditu zen bapatean. Asaldaturik esnatu zen. Itsasoa geldi zegoen. Ez zen haizerik sentitzen. Zerura begiratu zuen eta ez zuen izarrik ikusi. Bihotzaren taupadak bizkortu zitzaizkion, eta amaren zurezko kaxa distiratzan hasi zen. Kutxa irekitzeko unea zen. Urduri eta malkoak begietan, kutxa hura ireki eta distira batek erabat itsutu zuen. Bapatean, argi bat agertu zen zeruertzean, uhartera gero eta gehiago hurbiltzen ari zen. Lurrun-ontzi hegalaria erraldoi bat zen, urrezko tximiniduna eta latoizko helizeak zituen.

Lurrun-ontzia Kamileren etxola flotagarriaren ondoan porturatu zen, eta begirada zintzoa zuen emakume kapitaina jaitsi zen bertatik, eta bere amak bidalia zela esan zion. Lasai egoteko esan zion, berak babestuko zuela. Eta berarekin bidaiatzera gonbidatu zuen. Kamilek amaren kutxa besarkatu eta kapitainaz fidatzea erabaki zuen.

Bidaian zehar, lurrun-ontziaren erregaia Kamileren bizitzako oroitzapenak zirela konturatu zen: Uharteko bakardadea gogoratu zuen, itsasoaren usaina, gau hotzak... baina, batez ere, amarekin batera bizitako guztia gogoratu zuen.

Kamilek ulertu zuen *zorioneko kaxatxo* ez zela apaingarri soil bat: argi-hazi bat baizik. Egunak joan eta egunak etorri, oroitzapenak ez direla desagertzen ulertu zuen, betiko irauten dutela. Eta bere etxea ez zela azken urteetan sufritutako bakardadea, baizik eta istorio amaigabe osatutako bizitza bat.